



Gomendio espezifikoak

ILE APAINDEGIAK

- Beti aurrez hitzordua emanda egin behar da lan. Hitzordua ematerakoan, bezeroari gogoraraziko zaio ez duela ile apaindegira joan behar COVID-19arekin bateragarria den sintomarik badu.
- Lanaldi osoan zehar derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea. Ile apaindegiaren eta bere lantaldearen irizpidearen arabera, maskara aurpegirako plastikozko pantailagatik ordeztu ahalko da. Bezeroek zerbitzuak iraun bitartean erabiliko dituzte babeserako elementuak.
- Bezeroen artean 2 metrotako distantzia utzi apain-mahaien artean, edo horien artean manparak jarri. Era berean, ilea garbitzekoetan bezero bat baino gehiago egotea ekidin, horien artean behar adina distantziarik ez badago.
- Zerbitzu bakoitzeko eskularru pare bat erabili eta hondatzen diren aldiro aldatu.
- Eskuak garbitu zerbitzuaren aurretik, zerbitzuak iraun bitartean eta ondoren. Horretarako gel-banagailuak izango dira estilista eta bezeroarentzat.
- Zerbitzua egiteko elementuak jarriko dira bezeroaren eskura erabil ditzan (mantalak, erabilera bakarreko kapak...). Erabilera bakarrekoak ez diren batak eta kapak zerbitzu bakoitzeko garbitu beharko dira.
- Eskuetan bitxiak eramatea ekidin: pultserak, ordulariak, eraztunak... eta ilea bilduta eraman.
- Aldizkari eta paperezko prentsa oro kendu, baita landareak edo maneiatu daitekeen beste edozein elementu ere.
- Harrera gunea babestu eta kontuan hartu banaketarako manpara gardenen erabilera.
- Bezeroek ez dute komunik erabiliko.